

SARRIEGI-RI

Loriak udazkenian zimurtzen diran legez, zimurtu du azkenak edo eriyo zak Sarriegi poz emallean biyotza.

Donostiyak eta donostiarak beti zor izango diote. Eta «Iñudiak» ere bai.

MANUEL URANGA

DOÑULARI MAISU SARRIEGI-RI

Raimundo zanak baliyo zuben
edozeiñ beste bik aña
donostiar chit maitatiya zan
ta doñulari bikaña;
izketa guztiz šamurduna ta
gaitzik gabeko mingaña.
¡Zer gozua zan Donostiyari
edozki ziyon iraña!

· · · · · · · · · · · ·
Zapaldu zuten sega beltz edo
arranotzarran eguak,
oraiñ ordañak emango dizka.
aingeruakiñ Zeruak.

JUAN RAFAEL BERRONDO

! !

Sarriegi-k alaitzen zuben donostiarren bakardadia bere eresi josta-lluakin.

¿Zeñek alaituko du emendik aurrera?

TORIBIO ALZAGA

